

Ezagutu dituzun tokiak deskribatzen

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Oporretan nori ez zaio gustatzen bidaiatzea? Sekuentzia honetan egin duzun bidaia bat kontatu eta lagunekin partekatzeko aukera izango duzu. Ariketa hauek egingo dituzu:

- Bisitatuko zenituzkeen tokiak azaldu.
- Elkarrizketa entzun ondoren, galderei erantzun.
- Bidaietako esperientzia-zatiak dagokien adjektiboekin osatu.
- Galderei erantzunez, hitz egin taldean egin duzun bidaia bati buruz, deskribapena ere eginez.



1- Nora bidaiatu nahi duzu?

Oporrak pentsatzean, denok dugu buruan ezagutu nahiko genukeen lekuren bat. Behean dituzu adibide posible batzuen irudiak. Erantzun galderei, eta komentatu talde txikian.



Golden Gate (AEB)



Taj Mahal (India)



Turismorako etxolak (Finlandia)

1. Zein da gustura ezagutuko zenukeen herrialdea edo hiria?

2. Zer dakizu herrialde edo hiri horri buruz?

2- Horrelakoxea da India

Erreportaje honetan Ainhoa Zubeldia donostiarrak Indiari buruz hitz egingo digu. Entzun ondoren, erantzun beheko galderei.

1. Indiara joan aurretik zer pentsatzen zuen Ainhoak herrialde horri buruz?

2. Behin herrialdea ezagututa, Indiari buruz uste zuena egiazkoa zen?

3. Zer dio Ainhoak Indiako jendeari buruz?

3- Nolako tokia da?

Ariketa honetan bidaiari ezagututako jendea, tokiak, paisaiak deskribatzeko erabil ditzakegun zenbait adjektibo landuko dituzu.

Behean, bidaiari lotutako zenbait deskribapen-zati dituzu. Zati guztiak irakurri ondoren, aukeratu kasu bakoitzari ondoen egokitzen zaion adjektiboa. Erreparatu bereziki beltzez nabarmendutakoari.

gardenak

bakartia

basatia

bizitasun handikoak

ikusgarriak

eskuzabalak

usaintsuek

erakargarria

1. Gogoan dut Esloveniara joan nintzenean zenbat gustatu zitzaidan bertako hiriburua. Ljubljana kaleetan era askotako kultura-ekitaldiak izaten dira, jendea txirrinduan dabil batetik bestera, kaleko ikuskizun ugari dago une oro, eta jendaurreko musika gauez hainbat tabernatan. Hango kaleetan beti **mugimendu handia** egoten da: kaleak _____ dira.
2. Esloveniako kobazuloak benetan **ikusteko modukoak** dira. Adibidez, Postojnako kobazuloak aho zabalik utzi ninduen, dituen estalaktita eta estalagmita erraldoiengatik. Kobazulo _____ dira, bai.
3. Tanzania barne aldeko jendeak ez dauka ezer, baina **dena emateko dute**, oso _____ iruditu zitzaizkidan bertako herritarrak.
4. Zanzibarrera bidaiatzeko arrazoietakoa bat bertako hondartzak dira: urak **garbi-garbiak** dira, area berriz, zuri-zuria. Hondartza idilikoak benetan eta ur _____.
5. Tunisiako azokatik atentzioa ematen dute bertako espezie _____, eta jendeak ateratzen duen zalapartak.
6. Bardeak basamortu itxurako eremuek osatzen dute. Bardeetan **ez dago populaziorik**, beraz, oso paraje _____ da, baina aldi berean, tokiak **harrapatu egiten zaitu**, hau da, _____ da, duen paisaia bitxiarengatik. Bardeek, nire ustez, badute halako edertasun _____.

4- Zer gogoratzen duzu bidaiari buruz?



Gogoratu egin duzun bidaiari bitxi edo harrigarriren bat, eta ekarri gelara haren ezagututako toki baten argazkia. Ondoren, beheko galderari erantzunez, hitz egin talde txikian ezagutu zenituen tokiei buruz. Eta lagunak asmatzen duen zein tokiri buruz ari zaren.

- Tokiari buruz zer azpimarratuko zenuke? (bertako jendea, jatekoa, klima, paisaiak...)
- Nola deskribatuko zenuke? (harrigarria, dotorea, behartsua, bakartia...)
- Hara joan aurretik, zer irudi zenuen tokiari buruz?
- Toki hartatik zer ekarriko zenuke zure herrira?

ADIBIDEZ:

- *Duela pare bat urte Nepalera joan nintzen. Hiriburua, Katmandu, ikaragarri gustatu zitzaidan. Hiri harrigarria da, gehienbat dituen monumentu eta jende-arraza nahasketarengatik. Kaleak nahiko zikinak dira, baina zoragarria da bertako kale-kantoietan galtzea. Bertako jendearen janzkerak oso koloretsuak dira.*
- *Nepalera joan baino lehen uste nuen herrialde zikina izango zela, eta bertako jendea behartsua eta tristea. Egia da herrialde behartsua dela, baina oso aberatsa da kulturari eta tradizioei dagokienez.*
- *Nik uste dut Nepaletik bertako jendearen alaitasuna ekarriko nukeela. Gainera, jendea oso behartsua da baina, era berean, eskuzabala. Eta gure herrian zaila da horrelako jendea ikustea.*

2. Horrelakoxea da India

1. Indiara joan aurretik zer pentsatzen zuen Ainhoak herrialde horri buruz? Berak uste zuen herrialde zikina eta behartsua zela.
2. Behin herrialdea ezagututa, Indiari buruz uste zuena egiazkoa zen? Ez, guztiz. Herrialde behartsua eta zikinaren irudia Indiako zonalde txiki batean bakarrik ikusi du, eta India kaotikoaren irudia ere ez da herrialde guztian ikusten.
3. Zer dio Ainhoak Indiako jendeari buruz? Jendea oso irekia dela, eta bidaiaria familiako beste bat bezala tratatzen dutela.
4. Zer adierazi du Indiako kultura eta ohiturei buruz? Hemengoekin alderatuta oso desberdinak dituztela: dena eskuekin jaten dute eta lurlean eserita, eta beraien bizitza-erritmoa nahiz ordutegiak ere oso desberdinak dira.

3. Nolako tokia da?

bizitasun handikoak (1)

ikusgarriak (2)

eskuzabalak (3)

gardenak (4)

usaintsuek (5)

bakartia (6)

erakargarria (7)

basatia (8)